

## NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOAK PARKE NAZIONALEN SAREAN IKERKETA ZIENTIFIKOKO PROIEKTUAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN 2015eko DEIALDIA EGIN DU. ([2015-05-04ko BOE](https://www.boe.es/boe-dia/BOE-A-2015-04443.html))

### Interneteko helbidea:

<http://www.magrama.gob.es/es/parques-nacionales-oapn/programa-investigacion/convocatoria-2015.aspx>

### Deialdiaren helburua:

Diru-laguntzen deialdia egitea, publizitate, objektibotasun eta norgehiagoka erregimenean, 2015. urterako I+G+B Plan Nazionalaren testuinguruan ikerketa zientifikoko proiektuak egiteko. Zehazki, deialdi honen diru-laguntzak honako ikerketa ildo hauekin lotutako proiektuetara bideratuko dira:

1. Denboran zehar parke nazionalen kontserbazio egoeren ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten metodologiak garatzea.
2. Habitaten eta espezie adierazleen, espezie inbaditzaileen eta horien dinamikaren eta gaixotasun berrien patogeno nahiz bektoreen banaketa aldaketei erantzutea, ezagutza berriak eskuratzeko, parke nazionalak moldatzeko kudeaketa oinarri gisa.
3. Parke nazionalak esanguratsuak diren espezieak eta habitatak berreskuratzeko teknikak eta metodoak ezartzea.
4. Parke nazionalak espezieen, habitaten eta elkarrekintza ekologikoen sareen segimendua eta ebaluazioa egitea.
5. Parke nazionalak beren ingurunean duten eragin soziala eta ekonomikoa aztertzea. Parkeen ohiko erabilera bateragarrien eta horietako balio naturalen kontserbazioaren arteko sinergiak ezartzea. Parkeetako ingurumen zerbitzuak ebaluatzea.

### Proiektu motak:

Proiektuek Parke Nazionalen Sarearen Ikerketa Programan dauden lehentasunezko lerroetan ezagutza zientifiko eta teknologiko berriak eskuratzera bideratuta egon beharko dute.

Proiektuak Parke Nazionalen Sarearen barruko parke nazional bati edo gehiagori egin beharko dio erreferentzia, eta hiru urteko iraupena izango du. Proiektuak diziplina bakarrekoak edo anitzekoak izan daitezke, banakakoak edo koordinatuak.

### Ikertzaile nagusien baldintzak:

- Doktore titulua izatea.
- UPV/EHUrekin lotura izatea proiektua gauzatzen duen bitartean (3 urte, emakidaren erabakia argitaratzen denetik kontaktzen hasita).

### Eskaerak aurkezteko epea:

**2015eko ekainaren 10eko 15:00ak arte.**

### Eskaera egiteko prozedura:

Ikertzaile nagusiek eskaera telematikoki egingo dute, aplikazio informatiko hau erabiliz: <https://sede.micinn.gob.es/proyparques/>.

Memoria zientifiko-teknikoaren formularioa helbide honetatik deskargatu ahal izango da: <http://www.magrama.gob.es/es/parques-nacionales-oapn/programa-investigacion/convocatoria-2015.aspx>.

Ikertzaileek aplikazioaren bidez erantsiko dituzte beharrezkoak diren gainerako dokumentuak. Eskaera bete ondoren, baliozkotu eta telematikoki bidaliko dute.

Ondoren, aplikazio telematikoki automatikoki sortzen dituen dokumentuak inprimatuko dituzte. Bertan, ikertzaile nagusiaren, ikerketa taldeko gainerako kideen eta dagokien erakunde edo entitateko ordezkariaren sinadura originalek agertu beharko dute.

**Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko prozedura:**

Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko eskaerak **2015eko ekainaren 5era arte, ostirala**, bidali ahal izango dira, [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera, memoria zientifiko-teknikoarekin batera. Egun horretatik aurrera, ezin izango da eskaera baliozkotu eta epearen barnean aurkeztuko denik bermatu.

Horrez gain, ikertzaile nagusiaren eta taldekideen **sinadura originalak dituzten dokumentuak** barneko posta bidez bidali beharko zaizkio Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Deialdien Atalari.

**Kanpoko proiektuetan parte hartzeko baimenak:**

UPV/EHUtik kanpoko proiektu batean parte hartu nahi duten ikertzaileek **2015eko maiatzaren 29ra arte, ostirala**, bidali ahal izango dituzte beren eskaerak [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera.

**UPV/EHUn datuak:**

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren UPV/EHUn datuak:

- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g.
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Legezko ordezkaria: Fernando Plazaola Muguruza
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea

**UPV/EHurekin harremanetan jartzeko:**

Telefona: 94 601 80 08

Faxa: 94 601 35 50

Helbide elektronikoa: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**Ministerioarekin harremanetan jartzeko datuak:**

Kontsulta orokorrak: 91 546 81 78

Kontsulta informatikoak: 91 603 82 20